

**GINARRIZKO DOKUMENTUA FORU DEKRETU HONEN ZIRIBORROA
EGITEKO: NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUARI ETA
GAZTERIAREN ESKUALDEKO ETA TOKIKO KONTSEILUEI BURUZKO
FORU DEKRETUA**

Sarrera

110/86 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, “Nafarroako Erkidegoko Gazteriaren Kontseilua” sortzen duena, 53. NAOan argitaratu zen 1986/04/28an.

300/88 Dekretuak, abenduaren 27koak, haren izena aldatu zuen, eta harrezkero “Nafarroako Gazteriaren Kontseilua” izena hartu zuen. 5., 6. eta 8. artikulua ere aldatu zituen.

Gazteriari buruzko Foru Legeak (apirilaren 1eko 11/2011) indargabetu egin zituen 110/1986 Foru Dekretuko 1., 2., 3. eta 4. artikulua.

Beraz, Foru Dekretu horrek 30 urtetik gora ditu, indargabetutako lau artikulua eta aldatutako beste hiru, guztira 13 artikulua izanik.

Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 Akordio Programatikoak 2.6 atala eskaintzen dio Gazteriari; 5. puntuan, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua (CJN-NGK) eratzen duen FD aldatzeaz hitz egiten du, Nafarroako elkartearen eta lurraldearen egoera berrira egokitzeko.

Gazteriari buruzko Foru Legeak (apirilaren 1eko 11/2011), bere 35. artikuluan, NGK zer den eta haren helburuak eta eginkizunak zehazten ditu; geroko erregelamendu baterako uzten ditu haren osaketa, antolamendua eta funtzionamendua.

Era berean, 36. artikuluan, eskualdeko eta tokiko kontseiluak zer diren zehazten du, eta geroko erregelamendu baterako uzten ditu haien eraketa, helburuak, osaketa, eginkizunak eta aitorpena.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile jaunak eta Gazteriako zuzendariorde andreak Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteriaren Batzordearen aurrean 2016/11/04an egindako agerraldian, argi erakutsi zen erakunde horrek araudi-garapen horrekin zuen konpromisoa; izan ere, ekainaren 2an tramitatu zen espediente horri hasiera eman zion Foru Agindua.

Azaldutakoagatik, beharrezkoa ikusten da makineria administratiboa aktibatzea egokiak diren neurriak har daitezkeen Dekretu berri bat egiteari begira; inplikaturako alderdi guztiek lagunduko dute horretan, erantsitako kronograman biltzen den bezala (I. eranskina).

Era berean, interesekotzat jotzen da, argigarria izan baitaiteke, honako testu hauek ere eranstea: 110/86 eta 300/88 dekretuen testu bateratua, Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legearen 35. eta 36. artikulua eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren erregelamendua.

Aldi berean hiru mailatan lan egitea da hasierako ideia:

1. Dekretuaren edukia: alderdirik garrantzitsuenak bilduko ditu, baita aldaezinentzat eta denboran iraunkorrentzat jotzen direnak ere.
2. Foru Agindu bat edo bi, denbora joan ahala alda daitezkeen Dekretuaren alderdiak garatuko dituztenak.

3. Kontseiluaren erregelamenduak

Horiek guztiek prozesuaren bukaeran egon beharko dute prest, eta aldi berean hasiko dira funtzionatzen.

Dekretuak nabarmen bereizitako bi parte izanen ditu:

1.a CJD-NGK erakundeari eskainia

Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legearen “Nafarroako Gazteriaren Kontseilua” 35. artikulua 1., 2., 3. eta 4. atalak bildu beharko ditu; izan ere, goragoko araua izanik, Dekretu batek ezin ditu aldatu.

35. artikulua - Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

1. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua zuzenbide publikoko entitate bat da, nortasun juridiko propioa duena eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa duena. Jokatu du foru lege honetan, bera sortzeko foru dekretuan eta bera garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.
2. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren funtsezko xedea da gazteen parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean, bai eta gazteen eskubideak zaintzea ere, bereizkeriarik eta bazterketarik izan ez dezaten eta erabat gara daitezen.
3. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua izanen da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde esparruko gazteen entitateen eta gazteriaren ordezkari organo gorena, bai eta kasuan kasuko administrazioaren solaskide nagusia ere.
4. Hauek dira Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eginkizunak:
 - a) Gazteen asoziazionismoa sustatzea, aukeren berdintasunean, haren garapena sustatuz eta beharrezkotzat jotzen duen edo eskatzen zaion babesa, laguntza eta aholkularitza emanez.
 - b) Nafarroako Foru Komunitatean gazteriaren tokiko nahiz eskualdeko kontseiluak sor daitezen bultzatu eta sustatzea.
 - c) Jarduerak sustatzea ziurtatze aldera gazteek berdintasunez parte hartzen dutela haiengan eragina duten erabaki eta neurrietan.
 - d) Administrazioak gazteriarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke ezartzen dituen kontsulta-organoetan parte hartzea, eta interesgarritzat jotzen dituen gainerakoak proposatzea.
 - e) Administrazioaren eta gazteen arteko solaskidea izatea.
 - f) Nafarroako Gobernuarekin lan egitea gazteentzako politika bat prestatzen, populazio gaztearen arazoekin lotutako kanpainak eta jarduerak sustatuz.
 - g) Gazteengan eragin eksklusiboa duten foru legeen aurreproiektuei buruz eta foru dekretuen proiektuei buruz informatzea.
 - h) Gazteriarekin zerikusia duten gaiak buruzko txosten edo azterlanak egitea, beren kasa nahiz Administrazioak eskatuta. Horretarako, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Administrazioari beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio.
 - i) Eskualdeko, nazioko eta nazioarteko lankidetzak sustatzea, gazteriarekin zerikusia duten arloetan.
 - j) Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko kideak ordezkatzeko gobernuetako nahiz gobernu kanpoko erakunde eta foroetan, berariaz gazteriari buruzkoak diren arloetan zein bestelakoetan.

- k) Gazteen bizi kalitatea hobetzen eta aisia modu osasuntsuan garatzen laguntzea, jarduera kulturalak, informatiboak, prestakuntzakoak eta parte-hartzaileak antolatuz eta haiek gazteen populazio osoaren ezaugarrien arabera planifikatuz.
- l) Gazteen zerbitzuan Nafarroako Foru Komunitatean dauden baliabideak eta ondarea eraginkortasunez kudeatzeko neurriak proposatzea eta neurri horiek hartzen laguntzea; halaber, aipatutako baliabideak eta ondarea erabiltzeko irizpideak ezartzea.
- m) Gazteriaren arloan eskuduna den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuak esleitutako edo delegatutako beste edozein eginkizun.

HASIERAKO LAU PUNTU HORIEK GAZTERIARI BURUZKO LEGEAREN KOPIA ZEHATZ-ZEHATZAK DIRA, ETA EZIN DIRA ALDATU DEKRETU BATEN BITARTEZ.

Foru Dekretu berriak, gutxienez, honako hauek zehaztu beharko ditu:

5. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eraketa.
 - Nor izan daitezkeen CJN-NGKren parte.
 - Zer baldintza bete beharko dituzten haiek guztiek CJN-NGKren parte izan ahal izateko.
 - Nola lortzen/galtzen den parte izateko aukera.
 - Parte diren entitate zein pertsonen ordezkariak eta botoa.
 - Besterik.
6. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua.
 - Gobernu-organoak: Eraketa, eginkizunak, funtzionamendua, aukeraketa.
 - Lan-arloak: funtzionamendua eta kudeaketa.
 - Besterik.
7. CJN-NGKri atxikitako baliabideak
 - Aurrekontua.
 - Egoitza.
 - CJN-NGKko langileak: kontratazioa eta erregulazioa.
 - Besterik.
8. CJN-NGKren harremana Gazteriaren arloan eskumena duen administrazio-organoarekin
 - Elkarriketa.
 - Aldizkakotasuna.
 - Justifikazioak.
 - Besterik.
9. CJN-NGKren harremana beste administrazio-organo batzuekin
10. Interesekotzat jotzen den beste edozein kontu

2.a - Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluei eskainia.

Bigarren parte horren edukiaren aurrekaririk ez dago Nafarroako araudietan, salbuespen izanik Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legearen 36. artikulua eta 110/86 eta 300/88 dekretuen testu bateratuaren 5. artikuluen 5. atala.

36. artikulua - Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak.

Foru Dekretu berriak, gutxienez, honako hauek zehaztu beharko ditu:

1. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak, beren lurralde-esparruan, gazteen entitateen eta gazteriaren ordezkari organo gorenak dira, bai eta kasuko administrazioekiko solaskide nagusiak ere.

PUNTU HORI GAZTERIARI BURUZKO LEGEAREN KOPIA ZEHATZ-ZEHATZA DA, ETA EZIN DA ALDATU DEKRETU BATEN BITARTEZ.

2. Gazteriaren tokiko kontseiluak

- Eraketa

Galdera lagungarriak: Gazteen ekimenez?, udalaren ekimenez?, lehenik alkateak izendatutako batzorde kudeatzailea, barne araudiak egin eta batzar nagusirako deialdia egiteko?

- Eraketa:

Galdera lagungarriak: Elkartek eta erakundeak bakarrik?; kolektiboak, etxabeak, eta pertsona garrantzitsuak ere bai?

- Helburuak eta eginkizunak:

Galdera lagungarriak: Gazteen ordezkariak, solaskidea administrazioaren aurrean, besterik?

- Tokiko kontseiluen aitorpena:

Galdera lagungarriak: Udala? KGNI? NGK? Elkarteen erregistroa? Denak?

- Zein izanen den haien ordezkari CJA-NGKn?

- Galdera lagungarriak: Aldakorra udalerriko gazte kopuruaren arabera?

- Besterik
3. Gazteriaren eskualdeko kontseiluak
(Aurreko ataleko galdera lagungarriak erabil daitezke honetan ere)
- Nola ezartzen eta eratzen diren.
 - Helburuak eta eginkizunak.
 - Aitorpena.
 - Zein izanen den haren ordezkaritza CJN-NGKn.

Udal autonomian eragiten duen gai bat denez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa izanen da solaskide nagusia. Beste solaskide garrantzitsu batzuk ere egonen dira, hala nola gazteriako udal teknikariak.

Bai CJN-NGKk bai gazteriaren eskualdeko zein tokiko kontseiluek funtzionamendu demokratiko bat izan beharko dute, irabazi-asmorik gabea.